



Eskuko
ekipajea
Euskal
ipuin
modernoen
antologia
(1963-2018)

Ibon Egaña Etxeberria



Hitzaurrea

«Nobelagileari maleta bat egiteko esan eta mudantza bat antolatuko dizu. Ipuingileak ez: behar duen doia baino ez du honek maletan sartuko». Harkaitz Canok duela zenbait urte esandakoa etorri zitzaidan burura antologia honentzako izenburua pentsatzen hasitakoan. Ipuinari buruz ari garenean ezaugarri alboratu ezina da laburtasuna eta beharrezkoa dena soilik papereratzea, eta, hainbat metaforak bezala, maletarenak ederki jasotzen du generoaren izaera hori. Eta pentsatu nuen maletaren irudiak —*eskuko ekipajearenak*— jasotzen duela antologiaren funtsaren berri ere. Bidaia labur baterako eskuko ekipajea egitean bezala, antologia bat prestatzean, etxean utzi behar dira, ezinbestean, bestela sartu nahiko genituzkeen arropak eta trasteak; maletatxoa egiteak hautatzea eskatzen digu, gauzak bazterrean uztea, eta zerbait garrantzitsua ahaztu dugun ziurtasunarekin gurutzatzea etxeko atea. Antologia bat egiteak ezinbestean hautatzea esan nahi du, dagoen aukera zabalaren artean bakan batzuk nabarmentzea, bai eta badaezpada eraman nahiko genituzkeen eta maiteak ditugun alkandora eta zapata haiek halabeharrez etxean uztea ere.

Antologia guztiak injustizia-ekintzak direla gauza jakina da: beti aukera zitezkeen daudenak baino ipuin eta ipuingile gehiago, eta asko dira liburu honetatik kanpo penaz utzi ditudan ipuinak. Edozein antologiak dakarren arrisku horretaz jakitun ekin diot bilduma honetako ipuinak hautatzeari. Euskal ipuingintza modernoaren lagin adierazgarri bat hautatzea izan dut asmoa, eta, antologia guztietan hautatzailearen gustuak, ikuspegi estetiko edo ideologikoak eragina baldin badu ere, ahalegina egin dut, ustez behintzat, orriotan euskal ipuingintzaren panorama zabala eskaintzeko. Azken hamarkadetan argitaratutako euskal narratiba laburraren adierazgarri

diren eta arrazoi batengatik edo besteagatik esanguratsuak izan diren ipuin eta ipuingileak biltzeko xedeak eraman nau 25 ipuin hauek hautatzera. Hautaketa egitean, oreka bilatzea izan dut kezka nagusietakoa, hala ipuin-moldeei dagokienez, estetikei dagokienez, argitalpen-urteei dagokienez nola idazleen jatorri geografikoari, belaunaldiari eta generoari dagokienez ere, ahal izan den neurrian. Ordea, jakin badakit antologia hau ere injustizia dela, eta, hauen orde, egon zitezkeela beste 25 ipuin ere.

Ipuinak sarritan —garai eta hamarkada jakin batzuetan, bereziki— aldizkarietan plazaratu baziren ere, liburuetan argitaratutako ipuinak hobetsi ditut antologia hau egiterakoan, ez baita liburu honen asmoa izan arkeologia-lana egitea, edo ipuin ezezagunak eza-gutzera ematea¹. Irizpide horren salbuespena da Jon Miranderen «Gauaz parke batean» ipuina, *Eganen* argitaratu baitzen lehenago, eta egilea hil ostean baino ez liburu-formatuan. Bestalde, ipuina bera sarritan hartu izan da umeentzako generotzat, eta, horregatik, genero txikiagotzat ere bai, ahozko tradizioko ipuinak haurren ondareztat hartu baititugu aspaldiko hamarkadetan; ordea, helduen literaturako ipuinez osatutakoa da bilduma hau. Baina irizpide honetan ere egin dugu salbuespen bat: Mariasun Landaren *Iholdi* laneko ipuin bat aurkituko du irakurleak, liburu horretako narrazioek duten iradokitze gaitasunak haur irakurleei ez ezik helduei ere hitz egiten dielakoan. Azkenik, antologian idazle bakoitzaren ipuin bana sartzea izan da nire buruari ezarritako baldintzetako bat. Horrek eragin du ipuingile batzuen kasuan —aitzindari izandakoen kasuan, bereziki— haien hastapenetako ipuin bana hautatu izana, gerora generoan ibilbide oparoa izan badute ere.

1 *Ipuina.eus* atariak dihardu bilaketa eta berreskuratze-lan beharrezko horretan, besteak beste.

Abiatu aurrekoak. Bi ohar euskal ipuingintzaren ibilbideaz

Bilduma honetako ipuin zaharrena 1963an argitaratutakoa da, eta berrienak 2018an ikusi zuen argia. Euskal ipuin modernoan antologia egitea du liburu honek helburu, eta «moderno» adjektiboak eraman gaitu hasiera urtea 1963an kokatzera.² Ordea, euskal ipuingintza modernoa noiz hasten den ez da hain erraz ebatz daitekeen galdera, kontzeptuak berak ere ñabardurak onartzen baititu. Anjel Lertxundiren *Hunik arrats artean* liburuaren 2018ko edizio digitalari egindako hitzaurrean³, Inazio Mujika Iraolak, solasaldi formatuan, berriro egin zituen euskal ipuin modernoaren aitzindaritzaz sortu izan diren galderak: zein da lehen euskal ipuingile modernoa? Zein da lehen euskal ipuin-liburu modernoa? Lertxundiren 1970eko obra hori jo izan da lehen euskal ipuin-liburu modernotzat. Ordea, 1961ean Venezuelan argitaratutako Martin Ugalderen *Itzailleak* ez litzateke aitzindarien artean ahaztu behar. Ipuin-libururik idatzi ez bazuten ere, tematikoki zein estetikoki egin zuten ekarpenagatik, ezin ahaztuzkoak dira, orobat, Jean Etxepareren, Gabriel Arestiren eta Jon Miranderen ipuinak. Izan zezaketen aitzindari horiek guztiek lekurik antologia honetan, baina horien artean Miranderen ipuin bat baino ez du aurkituko hemen irakurleak. Beranduagoko idazleengan izandako eraginagatik eta oraindik ere irakurlea harritzeko duen gaitasunagatik hobetsi dugu Miranderen testua ibilbide honetarako abiapuntu gisa.

Edonola ere, Anjel Lertxundiren *Hunik arrats artean* liburuak 70etako idazle-belaunaldi gazteak ipuingintzarekin hartu zuen ja-

2 Hemendik aurrerakoan, batez ere Alvaro Rabellik osatutako euskal ipuingintzaren historiaren hariari jarraituko diogu. Rabelli, Alvaro (2011). «Sarrera. Gaurko euskal ipuingintzaren historia 1983/2003». In Rabelli, Alvaro (zuz.) eta Jon Kortazar (zuz.) *Egungo euskal ipuingintzaren historia*. Bilbo: UPV/EHU, 13-106.

3 Mujika Iraola, Inazio (2018). «Hizketan, esperoan». Anjel Lertxundiren *Hunik Arrats artean* liburuaren edizio berrituari egindako hitzaurrea. *Booktegi.eus* helbidean eskuragarri.

Korronteak¹¹

Ixiar Rozas

Barkatu, itxiko al zenuke atea mesedez?

Emakumeak ez dio Abdouri galdetu, ate ondoan eserita dagoen gizonari baizik. Batzuetan begiak ixten zaizkio leihoan dagoen emakumeari; loaren bidea hartzen du, baina berehala esnatzen da buruaren nahigabeko mugimendu batekin. Begiak zabaltzen dituenean urtsuak dituela ikusten du Abdouk, eta leihoaz bestaldera darama berriro soa. Haietako batean, buruaren mugimendu nahigabea Abdouren sorbaldan amaitu da. Oso leuna da emakumearen ile beltzarana, ume batena dirudi, baina aurpegian dituen zimurrengatik berrogei bat urte botako lizkioke. Usain ona du, berezkoa; ez du perfume merkerik erabiltzen, herriko neskek mutiletan egin nahi dutenean ez bezala. Burua sorbaldatik kendu dio Abdouk, leun, eta berriro ere beiraren kontra bermatu dio.

Ate ondoan eserita dagoen gizonak liburu batean du begirada. Trena geltokiren batean geratzen den orotan, liburutik altxatzen du, leihoan jartzeko, eta hasperen egiten du, liburuan irakurtzen ari den guztia leiho hartan islatzea nahiko bailuen. Eta ateari zeharkako begiratu bat ematen dio noizean behin, honek itxita jarraitzen duela ziurtatzeko. Beltzez dago jantzita. Goitik behera. Leihoaz bestaldera erortzen ari den euria bezala.

Euriak desira ezkutuak betetzeko ahalmena duela entzun izan du Abdouk ulertzeko gaitasuna duenetik.

Trenera igo aurretik ez zion inork esan hainbeste euri egingo zuenik. Nora jo behar zuen esan zioten, trena non hartu behar zuen eta zenbat orduko bidaia izango zen, baina ez, adibidez, euriaren

11 *Sartu korrontea dabil*. Erein, 2001

ñabardurarik —ez zen, antza, azpimagarria, bidaiari buruz jakin beharreko guztiak esan zizkionarentzat. Ordaindu zion diru kopuruaren truke ez zegoen antza horrelako informaziorik jasotzerik.

Xehetasun hori jakitea garrantzitsua da beretzat, ordea, akaso hortxe, euriaren baitan, datekeelako bere eginkizunaren arrakasta ala porrota. Ulertzeko gaitasuna duenetik entzun dituen euriari egotzitako dohainak benetakoak badira behintzat.

Hemeretzi urte bete berriak ditu Abdouk. Ezagutzen ez duen hiri baterantz doa: Parisera, ulertzeko gaitasuna duenetik bere herritarren ahotan hain sarritan entzun duen hirira. Trenez orain, edozein ustekabe saihesteko modurik ziurrena dela adierazi diotelako; baina aurretik, ahal izan duen guztian: oinez, itsasontziz —txalupa bati itsasontzia dei badakioke—, hozkailukamioi baten atzealdean. Gau eta egun, bitzta hobe baten bila, bera bezain gazte direnez inguratutik. Zorionez, horien aurpegietara so egitean ikusi du Abdouk bera desberdina dela, bera ez baitoa bitzta hobe baten bila: bere abizenari ohore egitera doa Parisera. Horretara bakarrik.

Egunak dira Mali agurtu zuela. Agur esan ziola arren aita topa zezan eskatzen zion amari. Poltsikoan darama, paper zati batean idatzita, jatetxe baten helbidea —bilaketaren abiapuntua—, eta baita aitaren argazkia ere —bilaketan lagungarri izango zaiolakoan—. Jatetxean elkartzen omen dira maliar guztiak astean behin, eta ziur dago aitaren arrastoa eurek emango diotela. Helduleku bakarra du; beraz, hara ez bada, ez baitaki nora jo.

Pariseko tren geltokian ikusi omen zuten Abdouren aita azkenekoz. Jatetxearen jabeak ikusi zuen, maleta handi bat zera-mala, eta horrek bi gauza adieraz zitzakeen: Abdouren aita hiritik alde egiteko zorian zegoela edo iritsi berria zela. Baina geltokitik atera eta taxi bat hartu zuela ikustean, lehenengo aukera baztertu egin zuen jatetxearen jabeak. Geratzera zetorren, beraz; beste

herritar bat patu hobeago baten bila, horixe pentsatu zuen. Taxira gerturatu zenerako urrundu egin zen. Agurtzeko betarik ez. Eta geroztik ez dute hura berriro ikusi. Baliteke hiritik joan izana, edo, besterik gabe, kale eta etxe labirinto hartan barrena desagertu izana. Hiriko biztanle asko bezala. Hori da esan ahal izan dioten guztia.

Abdouk badaki, ordea, berari ez zaiola gauza bera gertatuko, herrira itzuliko dela; hori pentsatzen aritu da trenean eseri denetik, trenak burdinbidean daraman abiadaren eraginez dena arindu bailitzan. Agian, bereak ez diren beste hamaika arrazoi-rengatik, bera bezalaxe trenean doan jendearekin nahasi delako. Izan ere, beste bat da orain Abdou bagoian, ondoan dituen gizonaren eta emakumearen aldean desberdina, baina aldi berean leihotik begira dezake berak ere, egunero ibilbide bera egiten duenaren patxadaz —poltsikoan daraman argazkia ahaztuz—. Besteek bezalaxe txartela ordaindu du berak ere; ez du itxura txarrik, amak propio erosi zion alkandora apaina baitarama soinean. Azalaren kolore ilunak bakarrik egiten du nabarmen, baina horrek ez du zertan kezkatu, Parisen bera bezalako azal iluneko asko baitago.

Bat-batean, emakumea tinko zutitu, berokia jantzi eta pasillora atera da sakelako telefonoa eskuan duela; gizonaren begiradak esku artean duen liburuan jarraitzen du, eta tarteka oinen artean duen maleta beltzean erreparatzen du. Ederra da emakumea, beltzarana; margotuak ditu ezpainak, gorriz; apain doa jantzita. Besoekin inguratzen du gerria, gorputza berotzeko berokia nahikoa ez bailuen. Zigarroari zupada pare bat eman eta berriro itzuli da, beste gazte bat bagoira sartu den unean berean. Azal ilunekoa balitz Abdouren antza handia izango luke gazte horrek; desberdintasun handi bat dago, ordea, bien artean: gaztea ere Pariserantz doa, baina, Abdouk ez bezala, munduko beste edozein hiri aukera zezakeen bezala aukeratu du hiri hori.

Aurkibidea

Hitzaurrea.....	5
Larruak	27
Ixiar Rozas: <i>Korronteak</i>	29
Xabier Montoia: <i>Ikatza bezain beltz</i>	41
Anjel Lertxundi: <i>Sargoria</i>	57
Inazio Mujika Iraola: <i>Regina. Aitak maite ninduen ikaragarri</i>	61
Eider Rodriguez: <i>Paisaiak</i>	68
Uxue Apaolaza: <i>Bueltak</i>	79
Iñigo Aranbarri: <i>Aldaira</i>	86
Bizitzak	97
Koldo Izagirre: <i>Arboletan</i>	99
Mayi Pelot: <i>Miren</i>	101
Iban Zaldua: <i>Kontuak ez du erremediorik</i>	104

Karmele Jaio: <i>Ez naiz ni</i>	112
Mariasun Landa: <i>Marraskia</i>	119
Ur Apalategi: <i>Beste bizitza</i>	120
Karlos Linazasoro: <i>Logos magoa</i>	137
Begiak	141
Joseba Sarrionandia: <i>Ginebra erregina erbestean</i>	143
Arantxa Iturbe: <i>Argazkiek ez dute gezurrik esaten</i>	152
Katixa Agirre: <i>Festa gonbidatuak</i>	161
Pello Lizarralde: <i>Behean</i>	181
Jokin Muñoz: <i>Isiluneak</i>	188
Piztiak	207
Bernardo Atxaga: <i>Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena</i>	209
Laura Mintegi: <i>Satorzuloa</i>	223
Ana Malagon: <i>Unikornioarena</i>	229
Antton Luku: <i>Zakur-ziloa</i>	230
Harkaitz Cano: <i>Ez zaie errazegi jarri behar</i>	240
Jon Mirande: <i>Gauaz parke batean</i>	245

Aurkibide kronologikoa

1963. Jon Mirande: <i>Gauaz parke batean</i>	245
1970. Anjel Lertxundi: <i>Sargoria</i>	57
1979. Koldo Izagirre: <i>Arboletan</i>	99
1983. Joseba Sarrionandia: <i>Ginebra erregina erbestean</i>	143
1983. Laura Mintegi: <i>Satorzuloa</i>	223
1985. Mayi Pelot: <i>Miren</i>	101
1987. Inazio Mujika Iraola: <i>Regina. Aitak maite ninduen ikaragarri</i>	61
1988. Bernardo Atxaga: <i>Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena</i>	209
1988. Mariasun Landa: <i>Marrazkia</i>	119
1991. Karlos Linazasoro: <i>Logos magoa</i>	137
1994. Pello Lizarralde: <i>Behean</i>	181

1995. Arantxa Iturbe: <i>Argazkiek ez dute gezurrik esaten</i>	152
1997. Xabier Montoia: <i>Ikatza bezain beltz</i>	41
1998. Antton Luku: <i>Zakur-ziloa</i>	230
2001. Ixiar Rozas: <i>Korronteak</i>	29
2003. Jokin Muñoz: <i>Isiluneak</i>	188
2005. Uxue Apaolaza: <i>Bueltak</i>	79
2005. Harkaitz Cano: <i>Ez zaie errazegi jarri behar</i>	240
2005. Iban Zaldua: <i>Kontuak ez du erremediorik</i>	104
2007. Katixa Agirre: <i>Festa gonbidatuak</i>	161
2010. Ur Apalategi: <i>Beste bizitza</i>	120
2012. Karmele Jaio: <i>Ez naiz ni</i>	112
2014. Ana Malagon: <i>Unikornioarena</i>	229
2017. Eider Rodriguez: <i>Paisaiak</i>	68
2018. Iñigo Aranbarri: <i>Aldaira</i>	86